



Esp.kodea: 2019DKRE0001

Gaia: 2019ko aurrekontuan kredituak
aldatzeko espedientea (PLENOA 2019/04/02)
Hasiera eguna: 2019/03/26

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2019ko apirilaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2018 URTEKO EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN SOBERAKINAREKIN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA (2019DKRE0001).”

Udal Plenoak, aldeko 11 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aurkako 10 boturekin (EH BILDU, Baleike eta Irabazi), Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko martxoaren 28an egin beharreko bilkuran 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartuko du, hartarako Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak aldeko txostena eman du. Egindako proposamenean, beharrezko doikuntzak egin eta gero, 11.973.025,60 euroko diruzaintza gerakina lortu da aipatu likidaziotik, eta horietatik 164.597,41 euroko kopurua dagokio finantzazio lotua duen gerakinari, eta gainontzekoa, 11.808.428,19 euro, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinari.

Aurrekontuaren likidazioarekin batera onartuko da 9.579.299,34€ko kreditu txertaketa egitea 2019ko aurrekontuetara. Txertaketa honetatik 400.220,67€ finantzatuko lirakeke lotutako diru-sarreraren menpeko kredituaz sortutako diruzaintza gerakinaz (164.597,41€) edo sarrera konpromisoekin (235.622,76€). Gainerakoa, 9.179.078,67€, 2018ko aurrekontuaren likidaziotik sortutako gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaz finantzatuko lirakeke. Beraz, kreditu txerkaketa onartuko balitz, oraindik ere gastu orokorretarako doitutako diruzaintzako gerakinaren kontzeptupean, 2.629.349,52€ko kopurua erabiltzeke geldituko litzateke.

Kopuru esanguratsua den neurrian eta 2019 ekitaldiko gastuen kudeaketa eta planifikazio egokiaren helburuaz, komeni da aipatutako soberakinaren erabilera lehenbailehen onartzea. Horretarako, Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordeburuak banaketa proposamena planteatu du batzordean bere azterketarako.

Kodea	H19/00347	Udala	ARRASATE
Data	2019/api./04	CUDO	000.0055.AAAA8MSM.S.9wpi
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA8MSMS.9wpi		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019DKRE0001

Gaia: 2019ko aurrekontuan kredituak
aldatzeko espedientea (PLENOA 2019/04/02)
Hasiera eguna: 2019/03/26

Proposamenaren oinarrian udal oreka finantzarioa eta bere iraunkortasuna bermatzeko borondatea islatzen da, horretarako datorren 2020 ekitaldiko aurrekontuaren zama arintzeko helburuz ondorengo proiektuei dotazio osagarriak (guztira 1.797.349,52€) zuzentzen zaizkielarik:

- 2019ko aurrekontuetan onartuta dauden kopuruez gain Kulturola proiektua (447.349,52€, banaketa orekatzeko gainontzeko), Araba Etorbideko Urbanizazioa (1.000.000€), Erguingo Igogailua (200.000€) eta Juan Arzamendi Musika Eskolarako ekipamendurako dotazioa handitzea (30.000€.) eta Antoñako Hezegunerako (40.000€), Amaia Antzokiko obrak (40.000€) eta Gipuzkoa etorbideko espaloiak (40.000€).

Bestalde, nahiz eta kontratuak indarrean egon, 2018ko likidazioaren testuinguruan 2019ra txertatzeko aukera legalik izan ez duten zenbait proiektuk finantzatzeko beharrezkoak diren kontusailak eta dotazioak egokitu dira (Ordainsari teknikoak, Amaiako argiztapen proiektua, Anbotoko kaleko urbanizazioaren proiektua, lorezaintzako konponketak, etab.), 39.000€.


Bukatzeko, beste behar berriak edo 2019ko aurrekontuetan sartu ez zirenak, orain, behin 2018ko soberakina zehaztu eta gero, kontuan hartu dira aurrekontuetarako, guztira 752.000€ko kopurua izanik. Horien artean aipagarrienak izan daitezke ondorengoak:

- Santa Barbarako Ur parkea, 425.000€, Gernika Ibilbideko birgaitze obrak, 50.000€, Garagartzako ur Saneamenduko Obrak, 100.000€, Kreditu Globalaren dotazioa berritzea, 75.000€tan (urte bukaeratik likidazioa onartu arteko akordioek ia osorik agortu dute onartutako 2019 aurrekontuen dotazioa), Ordainsari Teknikoen kontusaila eta kirol Inbertsioen kontusaila handitzea, 41.000€ eta 15.000€, hurrenez hurren, Makatzenako Murala, 17.000€, Garaiaiko Errotonda Obretarako ekarpena, 57.000€, eta beste kontusail batzuk gehitzea, 13.000€.

Proposamen horiek osotasunean onartuz gero, ehuneko ehunean erabilita geldituko litzateke gerakina. Gainera, horrek esan nahi du 2019ko aurrekontuak, hasieran onartutako kopuruei buruz, aldaketarik gabe gauzatuko balira, 2019ko gastu eta sarreraren itxiera orekatua lortzeko beharrezkoa izango litzatekeela ekitaldian eskatzea 334.977,72 euroko mailegu berri bat.

Bestalde, gastuen exekuzio orekatuari dagokionez, proposatu da zenbait kontusailetan komenigarria izango litzatekeela konpromiso kredituak (etorkizuneko ekitaldien konturako konpromisoak) onartzeko baimena Tokiko Gobernu Batzordeari ematea. Horrek suposatzen du 2019ko aurrekontuen exekuzio arauak aldatu behar izatea, konkretuki 14.artikulua. Aipatu baimena, lehen onartutakoaz gain, “Gernika Ibilbideko birgaitze obrak”, “Garagartzako ur saneamendu berria” eta “Juan Arzamendi Musika eskolarako ekipamendua” kontusailetara zabaltzea proposatzen da.

Kontuan hartuta hori guztia eta aztertuta bai kreditu aldaketari buruzko proposamena (urteanitzeko kredituak onartzeko gaitasunari dagokiona) eta baita ere soberakinaren banaketarena, eta batzordearen ustez biak onargarriak direla iritzirik, Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordeak,

Kodea	H19/00347	Udala	ARRASATE	
Data	2019/api./04	CUDO	000.0055.AAAA8MSM.S.9wpi	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA8MSMS.9wpi			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2019DKRE0001

Gaia: 2019ko aurrekontuan kredituak
aldatzeko espedientea (PLENOA 2019/04/02)
Hasiera eguna: 2019/03/26

EAJ-PNVko ordezkari bien eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin (3), eta EH-BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeetako ordezkarien kontrako botoekin (3), batzordeburuaren kalitateko botoarekin, akordio hau hartzea proposatzen dio osoko bilkurari:

1.- Hasierako onespena ematea 2019 ekitaldiko aurrekontuaren kreditu aldaketaren espedienteari, kreditu gehigarrien erregimenean, eranskinean azaltzen diren kontusailen aldaketen arabera, eta zerbaki laburpen honekin:

A- GASTU GEHIKUNTZA

II.Kap. – Ondasun eta Zerbitzu arruntak	33.000,00 euro
V. Kap. – Kreditu Globala	75.000,00 euro
VI. Kap. – Inbertsioak	2.521.349,52 euro
GASTU GEHIKUNTZAK GUZTIRA	2.629.349,52 euro

B- FINANTZAKETA –

B.1 – 2018KO DIRUZAINTZAKO GERAKINA **2.629.349.52**
euro

2.- Onartzea 2019ko aurrekontuaren exekuzio arauen 14.artikuluaren aldaketa, aipatutako kontusail berriak (Gernika Ibilbidea, Garagartzako ur eta saneamendu sarea eta Juan Arzamendi Musika Eskolako ekipamendua) sartuz TGBren eskuetan utzitako baimenen artean, etorkizuneko ekitaldien kontura konpromiso kredituak onartzeari dagokionez.

3.- Aipatu espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

4.- Jendaurreko epean ez bada aurkezten inolako erreklamaziorik, hasierako akordioa kontsideratzea behin betikoz onartuta”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2019ko apirilaren 4an.

O.E.

Alkateak

ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
MARIA UBARRECHENA CID
 Data: Fecha:2019-04-04


ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
ANA BELEN HIDALGO CORRAL

Kodea	H19/00347	Udala	ARRASATE
Data	2019/api./04	CUDO	000.0055.AAAA8MSM.S.9wpi
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA8MSMS.9wpi		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





2018ko SOBERAKINAREN BANAKETA

KONTUSAILA	IZENA	DOT.ACTUAL	ALDAKETA	OHARRA
1.0800.227.151.00.07	Makatzenako murala	-	17.000,00	partida nueva
1.1200.226.342.10.01	Kirola beste aktibitateak	5.000,00	6.000,00	
1.0809.210.171.00.00	Reparaciones jardineria	35.000,00	10.000,00	adjudicaciones no facturadas/incorporadas en 2018, 10.000
	<i>Total Aumentos cap.II</i>		<i>33.000,00</i>	
1.0100.500.929.00.00	Kreditu globala	5.000,00	75.000,00	del crédito anterior utilizados ya 65.000. disponible actual 5.000
	<i>Total aumentos cap.V</i>		<i>75.000,00</i>	
1.0500.601.171.02.00	Ur parkea Santa Barbara	-	425.000,00	kontusail berria
1.0200.622.334.00.00	Kulturola	500.000,00	447.349,52	utilizado para cuadro
1.0500.601.153.45.00	Araba etorbidea	200.000,00	1.000.000,00	plurianual existente
1.0501.601.134.00.01	Erguingo igogailua	100.000,00	200.000,00	plurianual existente
1.0800.601.153.40.01	Gipuzkoa etorbideko espaloia	100.000,00	40.000,00	existe otra partida procedente del 2018 por valor de 59.914,61
1.0800.601.153.42.01	Gernika ibilbideko obra	-	50.000,00	partida nueva y autorizacion nuevo créditos de compromiso. TGB
1.0805.601.161.01.00	Red agua y saneam. Garagartza	-	100.000,00	partida nueva y autorizacion nuevo créditos de compromiso. TGB
1.0510.601.172.01.01	Antoñako hezegunea	40.000,00	40.000,00	plurianual existente
1.0204.622.334.00.01	Amaia antzokiko obrak	50.000,00	55.000,00	incremento incluye 15.000 pyto.pendiente 2017
1.0500.642.151.00.00	Zerbitzu sari teknikoak	20.000,00	55.000,00	14.000 son proyectos iniciados en 2017
1.0500.622.150.00.00	Udal ondarearen inbertsioak	60.000,00	7.000,00	reposición minoración anterior
1.1200.622.340.00.00	Kiroletako inbertsioak	150.000,00	15.000,00	padel pisten zorua aldatzea
1.0500.601.462.00.00	Aportac.obra rotonda Garaia	-	57.000,00	nueva partida.convenio Garaia-Amenabar
1.0200.625.333.00.01	Equip.Musika etxea	1,00	30.000,00	autorizacion nuevo compromiso plurianual
	<i>Total Aumentos cap.VI</i>		<i>2.521.349,52</i>	
	TOTAL		2.629.349,52	